

KONTROL MOZIOA

BERO-BOLADEN AURREAN JARDUTEKO BERARIAZKO PROTOKOLO BAT SORTU ETA ATERPE KLIMATIKOEN SAREA EGUNERATZEARI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko iraileko Lurralde Garapeneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Espainiako Estatuan 1.386 pertsona hil dira gehiegizko beroagatik aurtengo abuztuan –iazko abuztuan baino % 3 gehiago–, Osasun Ministerioaren Carlos III. Institutuak emandako datuen arabera. Eta Hego Euskal Herrian 66 izan dira arrazoi beragatik abuztuan hil diren pertsonak.

Ez da harritzekoa, beraz, larrialdi klimatikoaren baitan, bero bolada edo osasun segurtasuna bezalako kontzeptuei buruz gero eta maizago hitz egitea, baita Aterpe Klimatikoei buruz ere. Aterpe Klimatikoak herritarrak beroaz babesteko guneak dira, barrukoak (eraikinak) edo kanpokoak izan daitezke eta, esan bezala, helburu nagusia beroak biztanleengan sortu ditzakeen kalteak murriztea da.

Aterpe hauei buruz, 2024ko abuztuaren 22an, Edu Zabala *Baso Biziak* plataformako kideak iritzi artikulua bat argitaratu zuen Berria egunkarian: “Aterpe klimatikoaren iruzurra, made in EAE”. Idatzian azaltzen zuen EAeko hiru hiriburuek badituztela “mapak, non zehaztu dituzten gune horiek”, baina, aldi berean, salatzen zuen “planik eta protokolorik gabe paper hutsa” besterik ez direla. Eta segidan, espresuki aipatzen zuen Donostia:

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

“2024ko abuztuaren 11n, alerta laranja egon gara EAEn, temperatura altuengatik; hori dela-eta Baso Biziak Plataformatik Donostiako barneko aterpe klimatiko batzuetara deitu dugu, hots, Kultur Etxeetara. Ez digute inon erantzun, bakarrik batean esan digute normalean igande goizetan zabalik egoten dela baina ez dutela inongo abisurik edo agindurik jaso udaletxetik.”

Hori dela eta, interpelazioa aurkeztu genuen iraileko Lurralde Garapeneko Batzordean, eta, besteak beste, protokolo eta baliabide zehatzei buruz galdetu genuen. Zinegotzi ordezkariak erantzun zuen Donostiak Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Bero Plana delakoan parte hartzen duela, hiriak eskuragarri dituen baliabideak udalaren web orrian identifikatuta daudela, eta, gainera, 2024ean baliabideak zabaltzeko egin direla, eraikin berriak gehituz eta hauen erabilera epea maiatzetik urrira bitarte luzatuz.

Une honetan, Donostian 37 barruko aterpe eta 52 kanpoko aterpe daude, eta hauetako bakoitzaren kokapena nahiz ezaugarriak udaleko atarian ikusgai daude. Hala ere, *Baso Biziak* plataformak egindako salaketa kontutan hartuta, zerbaitek huts egin du.

Eusko Jaurlaritzaren 2024ko Beroaren Aurkako Planaren baitan, “Toki administrazioentzako jardueren gomendioa” atala dago. Bertan, hiru agertoki edo maila desberdintzen dira, eta sailkatze honen arabera, abuztuaren 11n bigarren agertokian geunden; hau da, “Alerta tenperatura altuengatik”. Agertoki honetan, 1. mailan adierazitakoez gain, beste gomendio batzuk ematen dira, eta horien artean lehendabizikoa hau: “Larrialdi-egoeretan udalaren jarduera-planean adierazitako zerbitzuak ohartarazi”; eta jarraian honakoa gehitzen du: “Halakorik ezean, egoera horietan jardun dezaketen udal-zerbitzuak aktibatuz (babes zibila, udaltzaingoa, gizarte-zerbitzuak, boluntarioen elkarteak, etab.)”.

Donostian iragarrita dauden aterpe klimatikoetako batzuk ez daude erabilgarri edo eskuragarri abuztuan, hala nola Kultur Etxe gehienak, eta are gutxiago igandeetan (alerta laranja egon ginen eguna). *Baso Biziak* plataformak bakarrik aurkitu zuen irekita egun hartan, eta salaketaren arabera, gainera, kasu egin zien langileak esan zien Udalaren aldetik ez zutela “inongo abisurik edo agindurik jaso”.

Aurtengo uda, munduan inoiz erregistratu den beroena izan da, batez ere ipar hemisferioan, 2023ko errekorra hautsiz; hala jakinarazi du Copernicus Europako behatokiak. Zaila da sinestea, batez ere Donostian izan dugun eguraldi-giroarekin, baina hala da. Zorionez, Donostian salbuespen bat bizi izan dugu eta uda honetan beroaren gorabeherak ez dira

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

gertuko beste leku batzuetan bezala jasan. Baina horregatik ezin diogu erne egoteari utzi, ezta gutxiagorik ere. Errekorrak hausten dituzten tenperaturak etengabe gaintitzen dira urtero, eta Donostia zein donostiarrak prest egon behar dugu klima-aldaketaren ondoriozko agertokiei aurre egiteko.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari larrialdi-egoeretan eta bero-boladen aurrean prebentzioan jarduteko berariazko protokolo bat sor dezala, hiriaren beharretara eta ezaugarrietara egokitua, eta, ildo horretan, Donostiako Aterpe Klimatikoen Sarea eguneratu eta erabilgarri egin dezala.

2024ko irailaren 20an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia